

Oinetakoak, ibiltzeko

Martxoko argazki bat: etxeko zapatila bat, feltrozkoa, negurakoa. Orbel artean ahaztua. Geldi-geldian lokartua. Goroldioa itsatsi zaio orpoan, berde-berdea hori, pista-txo-kolorekoa. Ederki nabarmentzen da oinetakoa astigar izoztuaren hosto zaharren gainean. Lekukotasun moduko bat ematen du: "Hemen izan zirelako, naiz berton". Irmotasunaren seinale-edo.

Kanpora-martxorekin sentitu ohi da neguaz, iraganaz, hausnartzeko gogo. Ez du gogoratzeak pasatutakoa aldatuko, bai, akaso, datorrena ulertzen lagunduko: sanjose-loreak ederrak dira, beharbada euritsua izan delako negua, edo bereziki hotza, edo epela, edo lehorra.

Kukuaren etorrerarekin gogoratu ohi dira Dmitri Mendeleiev errusiarraren lehen taula periodikoa, emakume langileen aldarrikapena, Karl Marxen heriotza, Vietnamgo inbasio estatubatuarra... Egutegian, nahi beste efemeride dago, kolore bateko nahiz besteko, iraganeak denak. Zapatila ahaztuak bezala.

Apirileko argazki bat: basorako oinetakoein emakume zaharra fokuan, beroki lodia, bufanda ederra... hotz egiten du mendialdean. Oroigarria eskuetan. Bandera errepublikanoa paparrean... "Izan nintzelako odoletan, naiz orain



Jose Inazio Basterretxea

EHU-KO IRAKASLEA

Gogoratzeak ez du errebantxa eskatzen. Ezta barkamena ere. Iraganaren semeago egiten gaitu. Alabago. Horretan datza haren balentria

arrosetan". Ez delako-edo beti hobeagoa iragana.

Elgetan, gogoan hartu dituzte gerra garaiko emakume errepresaliatuak eta erresistenteak: guda-oinetako milizianoak, erizainak, lubaki-egileak, kaze-tariak... eta, behin frontea hautsita,

soldadu oldartuen ferra pean hartutakoak: urliaren ama, sendiaren emaztea, berendiaren alabak.

Ez du gogoratzeak aldatzen historia; gehien jota, negar-anpulua lehertuko du musuan. Gogoratzeak ez du errebantxa eskatzen. Ezta barkamena ere. Iraganaren semeago egiten gaitu. Alabago. Horretan datza haren balentria.

Maiatzeko argazki bat: botak, hango eta hemengo magalak zapaldu eta zola urratua dutenak, lokarriak gasta-gasta eginda dituzten oinetako militar zaharrak. Bandera bat ere haien ondoan: zuria, Borgoñako gurutzearekin. Atzealdean, *Oriamendi* abestiaren letra, pergamino itxurako orrialde batean idatzita. Zaharrak berri-edo.

Behinola etxeko atarian zapatilak ahaztu zituen amamak, Elgetara joateko bota indartsuak jantzi dituen berberak, dio, esan, armairuan ondo begiratzeko, aro aldaketak neurriko zapatak eskatzen dituela, udarako egokiak: "Maiatzeko loretan ez gara-eta bezperetan beste aspertzeta".

Luzeak dira gizakiaren ibilbideak, hobe iraganean lokartu barik jardutea, gaur baita biharko historiaren abiapuntua. Irmotasunaren gainetik. Nostalgia-aren gainetik. Ezin berriaren gainetik. ■

LUAarkitektoak

hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
etxebizitza proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Tel 948 13 26 97
lua@luark.com

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña

garabide

Jose Arana 13 · Eskoriatza (Gipuzkoa)
☎ 943 250 397
www.garabide.eus

txatxilipurdi

Nafarroa etorbidea, 23 / 1.
Arrasate (Gipuzkoa)
www.txatxilipurdi.com